



Gurasoek gaintitu beharreko azterketa

FINLANDIAKOA ei da munduko hezkuntza eredu estimatuenetakoa. Edonork onartuko du hori arazo handirik gabe, izan ezkerreko edo eskuineko, izan eredu publiko, pribatu edo kooperatibokoa. Non ote dira gakoak han? Pista batzuk: “Eskola orduak beste herrialde askotan baino gutxiago dira. Txikienean ez dituzte lauzpabost ordu baino gehiago egiten eskolan. Garrantzitsua da eskola orduak ez dezaten egun osoa hartu, eskolatik harago ere bada bizitzarik eta” (...).

“Bakoitzak gara ditzala bere ahalmenak onena den hartan, horixe da oinarria (...) Beste gakoa konfiantza da: unibertsitateak ez diren mailetan ez dago ia azterketarik, bakarra egiten da bigarren hezkuntza bukatu ondoren, eta ezer baino gehiago tradizioagatik. Azterketekin lortzen den bakarra zera da, lana hauek gaintitzera bideratzea, ez besterik; eta gure kasuan, ikasleek zer ikasten duten baino garrantzitsuagoa da ikaste prozesua bera”. Zer gertatzen da horrela? Besteak beste, ikasleen kalitate maila “uniformea dela, arazoak edo emaitza txarra goak dituztenak ez dira zigortzen, mailarik gorena har dezaten laguntzen zaie”.

Hiru hizkuntza ikasten dituzte: finlandiera, suediera eta hirugarren bat. “Horrek ez du emaitzetan eragiten, aitzitik, ikerketa askok erakutsi dute irakaskuntza elebidunak ikaste ahalmena hobetzen duela”. Finlandiako Hezkuntza Kontseiluko kide Leo Pakhinen hitzak dira aipatutakoak, Nerea Azurmendik *El Diario Vasco*-n iragan maiatzaren 4an argitaratutako elkarrizketatik jasoak.

ORTOZIK dabilen txakurrik ere izango da Finlandian, baina badi-rudi hezkuntza paradisura gerturatzeko dela hangoa, batez ere Euskal Herriko LOMCEren azterketen zurrumbilotik begiratzen bazaio. Nafarroan aste honetan Lehen Mailako ia 7.000 haurrek lau egunez egingo dituzte haien espediente akademikoan lehen kalitate marka utziko duen azterketa. Hilean zehar EAEko 30 eskoletan egingo dituzte 1.500 bat ikaslek, era lausoagoan, baina Madrilgo LOMCEren lorratzean edo beste la esan nahi bada “hemengo eran aplikatua”.

Pena da ikustea Lehen Hezkuntzan aurrera egin ahala haurrek, oro har, nola galtzen duten eskola barruko edukiarekiko interesa

Hezkuntza komunitatean LOMCEren aurka dagoen arbuio handia kontuan izanda, hezkuntza agintariek lasaitasunerako deia egin dute EAEn eta Nafarroan. Ez ei da aldaketa handirik Lehen Hezkuntzako 3. mailako lehengo ebaluazio azterketarekin konparatuta, baina derrigor egin behar da; ez ei da garrantzitsua izango espediente akademikoan, baina lehengo 1, 2 eta 3 puntuazioak orain gaintitua eta ez gaintitua bihurtuko dira. Eta curriculum? Madrilek finkatzen du, jakina.

Pena da ikustea Lehen Hezkuntzan aurrera egin ahala haurrek, oro har, nola galtzen duten eskola barruko edukiarekiko interesa. Gero eta eduki gehiago memoriari ikasteko, gero eta etxeko lan gehia-

go “gazteek diziplina eta ohitura har dezaten”. Arazo akademikorik ez duten etxeetan gaitz erdi, eskolan erdipurdi dabilzanekin afal aurreko gurutze-bidea.

Zorionez bestelako moldeak ere ikusten dira han-hemenka, bateko zein besteko hezkuntza eredutan, edo eskoletako irakasle eta guraso askoren ahaleaginean, edo hauek biltzen dituzten elkarreetan, gero eta parte-hartzaileagoak diren komunitateetan...

Eta zoritxarrez, oraingoz lehia eta edukiaren korrantea handiegia da pertsona, komunitatea eta baloreak oinarrian jartzen dituen hezkuntzak indarrez aurrera egin dezan. PPk datorren legealdian Madrilgo gobernua eskuratzen ez badu akaso erretiratuko ei da LOMCE, baina oraindik ere bestelako hezkuntzarantz abiatzeko azterketarik garrantzitsuenetakoa gurasoen gain da, gurasoen gehiengo oraindik edukia, etxeko lana eta lehiaren hiruki santuan harrapatua delako.

Ez naiz ni izango legee garrantzia kenduko diena –batez ere gureak ez direnean–, baina une honetan, praktikoak izateko eta bereziki DBH bukatu artekoan, gurasook baino gehiago egin ote dezake norbaitek gure seme-alaben hezkuntza-heltzeari presioa kentzeko? Hitz egiten ote da hortaz gurasoon artean? Etxeko lane-kiko presioaz adibidez, etxeko hizkuntzaz, etxeko egiazko lanez (garbiketa, otorduak, zaintzak...), lehiarekiko kontrolaz... eta, zeresanik ez, Nafarroan bederen, curriculumarekiko etengabeko zuzenketaz? Edo 13 urteko gure milaka gaztek oraindik ikasi behar dute zein oparoa izan zen Espainiaren Amerikako konkista? ■